


# BIYOZTASUNA

**A**RRANTZALE baten seme gazte bat, zijoan botilla bat artu ta sagardu-  
duen billa; bañan birian zijoala chirrist egin, ta kokotzakin  
lurra jorik, egiñ zuben *zajara* aundi bat eta arkitu zan odola chirri-  
yuan zijoakiyola.



¡Gisarajoa! negarrez ari zala inguratu zitzayon gizon langille bear-  
tsu bat, era esan ziyon :

—Ez dek ori ezer, chiki; to *charpona*.


Bere patrikaran zeukan musu zapi edo pañueluakin lotuziyon eba-  
kiya era bigaldu zuben echera.

Irichi zan echera era malkuak ugari išuririk, eta sotiñak ugari egi-  
ñik, esan ziyon bere aitari:

—Aita: ¡erori eta miñ artu det!

- ¿Eta zeñek emandik *pañuelua*? ¿eta nork jarri dik min tokiyan?  
 —¿Langillebatek!  
 —¿Esagutzen aldeak?  
 —Arpegiz bai.....

\*  
\* \*



Urrengo egunian itsasotik etorri ziranian, kai muturrian zegoen langille ura; mutillak ikusi ordurako esarutu zuben, eta oju ta ka-grasi deitu ziyan aitari:

—Aita, goyen dagon gizon ori da chanpona eta gañerakuak emanzikirana.

Orduan aitak, chalupako iru legatzik aundiyanak artu, ta igo zan gizon arrengana, eta esanziyon:

—Aiskiria, atzo nere semeari egin zeniyon mesedeagatik, torizkitu legatz abek, eta musu zapiaren ordeztori nerea.

¡Beti izandu da arrantzale euskaldunen artian, biyoztasun paregabia!

JOSÉ ARTOLA

